

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### Laburpena

- Biztanleen %90 inguru pozik edo oso pozik dago osasun-sistemarekin.
- Pertsonen %95 inguruk uste du osasun-sistemak ongi asetzen dituela bere osasun-arreta beharrak.
- Euskadiko biztanleriaren %99 Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren bidez aseguratuta dago.
- Euskadiko biztanleriaren %70ek uste du familia-medikuaren eta mediku espezialistaren aldetik jasotzen duen arreta koordinatuta dagoela beti edo askotan.
- Aurreko hiru urteetan mamografia bat egin duten 50-64 urteko emakumezkoen proportzioak (adin-talde hori zen titietako minbizia bahetzeko programaren jomuga-taldea, eta duela gutxi 69 urtera zabaldu da) gora egiten jarraitu du 2002tik, eta 2013an %90a gainditu du. Gainera, desagertu egin dira desberdintasun sozioekonomikoak.
- Ez da desberdintasun sozioekonomikorik ikusten kolon eta ondoesteko minbizia bahetzeko programan egon den parte-hartzean.
- 25-64 urteko emakumezkoen %72k, hiru urtetik behin edo sarriago zitologia bat egiten dute. 2007ko datuen aldean %4 egin du behera. Zitologiaren frekuentziak behera egiten du, gizarte-eskalan behera egin ahala.
- Griperekin aurkako txertoa hartu duten 65 urte eta gehiagoko pertsonen proportzioak behera egin du.
- Gizonezkoen %74k eta emakumezkoen %80k mediku orokorraren edo pediatraren kontsulta erabili dute aurreko hamabi hilabeteetan.
- Erizainen kontsulten erabilerak nabarmen egiten du gora adinarekin.
- Aurreko urtebetean dentistaren kontsulta erabili duten pertsonen proportzioak nabarmen egiten du behera, maila sozioekonomikoak behera egin ahala.
- Gizonezkoen %45ek eta emakumezkoen %57k mediku espezialistaren kontsulta erabili dute aurreko urtebetean. Adinean aurrera egin ahala, gero eta handiagoa da era horretako kontsultak egiten dituzten pertsonen proportzioa.
- Gizonezkoen %13k eta emakumezkoen %14k larrialdi-zerbitzuak erabili dituzte aurreko sei hilabeteetan.
- 2007ko datuekin alderatuz gero, behera egin du aurreko urtean zehar ospitaleratuak izan diren pertsonen proportzioak.
- 2013an, Euskadiko biztanleen %6k erabili ditu eguneko ospitaleak aurreko hamabi hilabeteetan zehar.
- Osakidetza bertaratu gabe jaso daitezkeen osasun-zerbitzu batzuk jarri ditu martxan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) berrietan oinarrituta. Herritarrek zerbitzu horietaz duten ezagutza aldatu egiten da zerbitzu-motaren arabera. Telefono bidez aurretiko hitzordu automatizatua eskatzeko aukera da ezagunena.

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### I. Osasun-sistemaren balorazioa

#### • 72 IRUDIA

Gizonezkoen %91 eta emakumezkoen %89 pozik edo oso pozik daude osasun-sistemarekin. Osasun-sistemarekin pozik dauden pertsonen proportzioak %5 egin du gora, 2007ko datuekin alderatuz gero.


#### • 73 IRUDIA

Gizonezkoen %96k eta emakumezkoen %95ek uste dute osasun-sistemak ongi asetzen dituela beren osasun-arreta beharrak. Proportzio hori %3 igo da 2007tik.

#### 72 IRUDIA

Osasun sistemarekiko gogobetetasunaren bilakaera, 2002-2013  
Evolución de la satisfacción con el sistema sanitario, 2002-2013

Pozik dauden pertsonen prebalentzia\*  
Prevalencia de personas satisfechas\*




\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

#### 73 IRUDIA

Osasun arretaren beharren estalduraren bilakaera, 2002-2013  
Evolución de la cobertura de las necesidades de atención sanitaria, 2002-2013

Bere beharrak beteta dauzkaten pertsonen prebalentzia\*  
Prevalencia de personas con necesidades cubiertas\*



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK


### II. Aseguramendu-estalduraren modalitatea

#### • 74 IRUDIA

Euskadiko biztanleriaren %99k Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren bidez aseguraturuta du osasun-arreta. Gizonezkoen %41 eta emakumezkoen %33 nahitaezko afiliazioko mutualitatearen batean sartuta daude (adibidez, MUFACEn...), eta bi sexuetako pertsonen %13k aseguru-etxe pribaturen baten estaldura du.

74 IRUDIA

Osasun-aseguramenduaren banaketa\*, 2013  
Distribución del aseguramiento sanitario\*, 2013



\*Aukera ez-baztertzailak/Categorías no excluyentes

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### III. Asistentziaren jarraitutasuna

#### • 75 IRUDIA

Arazo kronikoren bat duen Euskadiko biztanleriaren %70ek uste du familia-medikuaren eta mediku espezialistaren aldetik jasotzen duen arreta koordinatuta dagoela beti edo askotan. %70 horretan, aurreko hamabi hilabeteetan kontsultara joan direnak eta ez direnak sartzen dira.


#### • 76 IRUDIA

Lehen mailako arreta eta arreta espezializatua beti edo askotan koordinatuta daudelako ustea antzekoa da bi sexuetan, eta gora egiten du adinarekin; izan ere, 65 urte eta gehiagoko herritarren artean, %80 inguruk uste du bi arreta-mailak koordinatuta daudela.

#### 75 IRUDIA

Asistentziaren jarraitutasuna, 2013  
Continuidad asistencial, 2013


Lehen mailako familia-medikuaren asistentzia eta mediku espezialistarena koordinatuta daude  
La atención médica primaria y especializada están coordinadas



#### 76 IRUDIA

Asistentziaren jarraitutasuna adinaren arabera, 2013  
Continuidad asistencial según la edad, 2013

Lehen mailako familia-medikuaren asistentzia eta mediku espezialistarena koordinatuta daude  
La atención médica primaria y especializada están coordinadas



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### III. Asistentziaren jarraitutasuna

#### • 77 IRUDIA

Arazo kronikoren bat duen Euskadiko biztanleriaren %96k toki berera jotzen du, beti edo askotan, osasun-arazoren bat duenean edo bere gaixotasunari buruzko aholkuak behar dituzenean.


#### • 78 IRUDIA

Adinak ia ez du eraginik arreta jasotzera edo osasun-aholkuak jasotzera toki berera joate horretan.

#### 77 IRUDIA

##### Asistentziaren jarraitutasuna, 2013 Continuidad asistencial, 2013


Toki berera jotzen dute asistentzia edo aholku bila  
Acuden al mismo lugar en busca de atención o consejo



#### 78 IRUDIA

##### Asistentziaren jarraitutasuna adinaren arabera, 2013 Continuidad asistencial según la edad, 2013

Toki berera jotzen dute asistentzia edo aholku bila  
Acuden al mismo lugar en busca de atención o consejo



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### IV. Minbizia bahetzeko programak

#### • 79 IRUDIA

Aurreko hiru urteetan mamografia bat egin duten 50-64 urteko<sup>1</sup> emakumezkoen proportzioak gora egiten jarraitu du azken urteetan, eta %90a gainditzera iritsi da.

#### • 80 IRUDIA


Aurreko hiru urteetan mamografia bat egin duten 50-64 urteko emakumeen proportzioa ia ez da aldatzen adin-taldeen arabera.

<sup>1</sup> Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko Programako jomuga-taldea izan da duela gutxira arte, orain 69 urtera zabaldu baita.

#### 79 IRUDIA

##### Titietako minbiziaren detekzio goiztiarraren bilakaera, 2002-2013 Evolución de la Detección precoz del cáncer de mama, 2002-2013


Aldez aurreko hiru urteetan mamografia egin duten 50-64 urteko emakumeak  
Mujeres de 50-64 años que se han hecho una mamografía en los tres años previos



#### 80 IRUDIA

##### Titietako minbiziaren detekzio goiztiarraren bilakaera adin-taldeen arabera, 2002-2013 Evolución de la Detección precoz del cáncer de mama por grupos edad, 2002-2013

Aldez aurreko hiru urteetan mamografia egin duten 50-64 urteko emakumeak  
Mujeres de 50-64 años que se han hecho una mamografía en los tres años previos



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### IV. Minbizia bahetzeko programak

#### • 81 IRUDIA

Ez dago desberdintasun sozioekonomikorik aurreko hiru urteetan mamografia bat egin duten 50-64 urteko emakumeen proportzioan.

#### • 82 IRUDIA


Era berean, ez dago ikasketa-mailaren araberako desberdintasunik aurreko hiru urteetan mamografia bat egin duten emakumeen proportzioan.

#### 81 IRUDIA

##### Titietako minbiziaren detekzio goiztiarraren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013

##### Desigualdades en la detección precoz del cáncer de mama por clase social, 2013

Aldez aurreko hiru urteetan mamografia egin duten 50-64 urteko emakumeak  
Mujeres de 50-64 años que se han hecho una mamografía en los tres años previos




#### 82 IRUDIA

##### Titietako minbiziaren detekzio goiztiarraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013

##### Desigualdades en la detección precoz del cáncer de mama por nivel de estudios, 2013

Aldez aurreko hiru urteetan mamografia egin duten 50-64 urteko emakumeak  
Mujeres de 50-64 años que se han hecho una mamografía en los tres años previos



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### IV. Minbizia bahetzeko programak

#### • 83 IRUDIA

Jomuga-biztanleriaren %80 inguruk (bi sexuetako 50-69 urteko pertsonak osatzen dute jomuga-biztanleria) hartu du parte kolon eta ondoesteko minbiziaren diagnostiko goiztiarren programan, eta ez dago desberdintasun handirik gizonezkoen eta emakumezkoen artean, ez eta adin-taldeen artean ere.


#### • 84 IRUDIA

Ez dago klase sozialaren arabera desberdintasun sozioekonomikorik kolon eta ondoesteko minbiziaren detekzio goiztiarren programan egon den parte-hartzean.

#### 83 IRUDIA

Kolon eta ondoesteko minbiziaren detekzio goiztiarra adin-taldeen arabera, 2013  
Detección precoz del cáncer colorrectal por grupos edad, 2013


Programan parte hartu duten 50-69 urteko pertsonak  
Personas de 50-69 años que han participado en el programa



#### 84 IRUDIA

Kolon eta ondoesteko minbiziaren detekzio goiztiarren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013  
Desigualdades en la detección precoz del cáncer colorrectal por clase social, 2013

Programan parte hartu duten 50-69 urteko pertsonak  
Personas de 50-69 años que han participado en el programa





# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### IV. Minbizia bahetzeko programak


#### • 85 IRUDIA

Nahiz eta unibertsitateko ikasketak dituzten emakumezkoen proportzioa gainerako taldeena baino zertxobait baxuagoa den kolon eta ondoesteko minbiziaren diagnostiko goiztiarrean parte hartu duten pertsonen artean, ez dago ikasketa-mailaren arabera desberdintasun handirik programan egon den parte-hartzean.

85 IRUDIA

### Kolon eta ondoesteko minbiziaren detekzio goiarraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013 Desigualdades en la detección precoz del cáncer colorrectal por nivel de estudios, 2013

Programan parte hartu duten 50-69 urteko pertsonak  
Personas de 50-69 años que han participado en el programa



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### IV. Minbizia bahetzeko programak

#### • 86 IRUDIA

2013ko urtean, 25-64 urteko<sup>2</sup> emakumeen %72k aurreko hiru urteetan zitologia bat egin dute, umetoki-lepoko minbiziaren diagnostiko goiztiarrerako metodo gisa. Proportzio honek %4 egin du behera, 2007koen aldean.

#### • 87 IRUDIA


Aurreko hiru urteetan zitologia bat egin duten 15-24 urteko eta 65-74 urteko emakumeen ehunekoak modu jarraituan igo da; 15-24 urteko emakumezkoen kasuan, ehuneko 10 puntu 2002tik, eta 65-74 urtekoen kasuan, ehuneko 12 puntu. 2013an, 25-49 urteko emakumezkoen %74k eta 50-64 urtekoen %68k egin dute proba hori azken hiru urteetan.

<sup>2</sup> Umetoki-lepoko Goiz Detektatzeko Programako jomuga-biztanleriako adin-taldea.

#### 86 IRUDIA

Umetoki-lepoko minbiziaren detekzio goiztiarraren bilakaera, 2002-2013  
Evolución de la detección precoz del cáncer de cuello de útero, 2002-2013

Aldez aurreko hiru urteetan zitologia egin duten 25-64 urteko emakumeak\*  
Mujeres de 25-64 años que se han hecho una citología en los tres años previos\*




\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

#### 87 IRUDIA

Umetoki-lepoko minbiziaren detekzio goiztiarraren bilakaera adin-taldean arabera, 2002-2013  
Evolución de la detección precoz del cáncer de cuello de útero por grupos edad, 2002-2013

Aldez aurreko hiru urteetan zitologia egin duten emakumeak  
Mujeres que se han hecho una citología en los tres años previos



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### IV. Minbizia bahetzeko programak

#### • 88 IRUDIA

Talde sozioekonomikoan behera egin ahala, behera egiten du aurreko hiru urteetan zitologia bat egin duten emakumeen proportzioak ere. 2013an, I. klaseko (klase altuena) emakumezkoen %76k egin du proba; V. klaseko (klase baxuena) emakumezkoen artean, berriz, %71k egin du.

#### • 89 IRUDIA

Era berean, ikasketa-mailak gora egin ahala, aurreko hiru urteetan zitologia bat egin duten emakumeen proportzioak ere gora egiten du; izan ere, Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzten emakumezkoen %62k egin du, eta unibertsitateko ikasketak dituzten emakumezkoen %75ek.

#### 88 IRUDIA



#### 89 IRUDIA

Umetoki-lepoko minbiziaren detekzio goiztiarraren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013  
Desigualdades en la detección precoz del cáncer de cuello de útero por clase social, 2013

Umetoki-lepoko minbiziaren detekzio goiztiarraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013  
Desigualdades en la detección precoz del cáncer de cuello de útero por nivel de estudios, 2013

Aldez aurreko hiru urteetan zitologia egin duten 25-64 urteko emakumeak\*  
Mujeres de 25-64 años que se han hecho una citología en los tres años previos\*

Aldez aurreko hiru urteetan zitologia egin duten 25-64 urteko emakumeak\*  
Mujeres de 25-64 años que se han hecho una citología en los tres años previos\*



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### V. Gripearen aurkako txertoa

#### • 90 IRUDIA

Adin-talde guztietan, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan, behera egin du gripearen aurkako txertoa hartu duten pertsonen proportzioa. 65-74 urteko emakumezkoen artean egon da beherakadarik handiena; izan ere, 2007an %68k hartu zuen txertoa, eta 2013an, %55ek hartu du.


#### • 91 IRUDIA

2007ko datuen aldean, ehuneko 5 puntu jaitsi da gripearen aurkako txertoa hartu duten 65 urte eta gehiagoko pertsonen proportzioa. 2013an, gizonezkoen %73k eta emakumezkoen %68k hartu dute gripearen aurkako txertoa; ehuneko horiek 2002koen antzekoak dira (gizonezkoen %70 eta emakumezkoen %69).

#### 90 IRUDIA

Gripearen aurkako txertoaren bilakaera adinaren arabera, 2002-2013  
Evolución de la vacunación contra la gripe según la edad, 2002-2013


Txertoa hartu duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas vacunadas



#### 91 IRUDIA

Gripearen aurkako txertoaren bilakaera 65 urte eta gehiagoko biztanlerian, 2002-2013  
Evolución de la vacunación contra la gripe en la población de 65 y más años, 2002-2013

Txertoa hartu duten pertsonen prebalentzia\*  
Prevalencia de personas vacunadas\*



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### V. Gripearen aurkako txertoa

#### • 92 IRUDIA

Gripearen aurkako txertoa hartu duten 65 urte eta gehiagoko pertsonen prebalentziak gora egiten du, gizarte-eskalan behera egin ahala. Izan ere, 2013an, V. klaseko (klase baxuena) gizonezkoen %81ek hartu du txertoa, eta I. klaseko (klase altuena) gizonezkoen %56k.

#### • 93 IRUDIA


Ikasketa-mailari dagokionez, berriz, bi sexuetan desberdintasuneko alderantzizko ereduak agerian dago. Izan ere, gripearen aurkako txertoa hartu duten 65 urte eta gehiagoko pertsonen artean: Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonak dira txertoa gehien hartzen dutenak, %77raino iristen baitira gizonezkoetan eta %70eraino emakumezkoetan.

#### 92 IRUDIA

#### Gripearen aurkako txertoaren desberdintasunak klase sozialaren arabera 65 urte eta gehiagoko biztanlerian, 2013

Desigualdades en la vacunación contra la gripe en la población de 65 y más años por clase social, 2013

Txertoa hartu duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas vacunadas




#### 93 IRUDIA

#### Gripearen aurkako txertoaren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera 65 urte eta gehiagoko biztanlerian, 2013

Desigualdades en la vacunación contra la gripe en la población de 65 y más años por nivel de estudios, 2013

Txertoa hartu duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas vacunadas



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### VI. Mediku orokorren eta pediatren kontsultak

#### • 94 IRUDIA

Gizonezkoen %74k eta emakumezkoen %80k kontsultaren bat egin diote mediku orokorrari edo pediatrari aurreko urtebetean. Adinean aurrera egin ahala, gero eta handiagoa da era horretako kontsultak egiten dituzten pertsonen proportzioa. Adin guztietan, era horretako kontsultak egin dituzten pertsonen proportzioa handiagoa da emakumezkoetan gizonezkoetan baino.

#### • 95 IRUDIA


Bi sexuetan, mediku orokorrari edo pediatrari kontsulta egin dioten pertsonen proportzioak gora egiten du, klase sozialak behera egin ahala.

#### 94 IRUDIA

#### 95 IRUDIA

**Mediku orokorren eta pediatren kontsulten erabilera adinaren arabera, 2013**  
Uso de consultas de medicina general y de pediatría, según la edad, 2013


Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo



**Mediku orokorren eta pediatren kontsulten erabileraren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013**  
Desigualdades en el uso de consultas de medicina general y de pediatría, por clase social, 2013

Desigualdades en el uso de consultas de medicina general y de pediatría, por clase social, 2013

Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK


### VI. Mediku orokorren eta pediatren kontsultak

#### • 96 IRUDIA

Era berean, ikasketa-mailak gora egin ahala, behera egiten du mediku orokorren eta pediatren kontsultak erabiltzen dituztenen proportzioak.

96 IRUDIA

Mediku orokorren eta pediatren kontsulten erabileraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013  
Desigualdades en el uso de consultas de medicina general y de pediatría, por nivel de estudios, 2013



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### VII. Erizainen kontsultak

#### • 97 IRUDIA

Gizonezkoen %44k eta emakumezkoen %48k kontsultaren bat egin diete erizainei. Era horretako kontsultek nabarmen egiten dute gora adinarekin. 65 urtetik gorakoen kasuan, gizonezkoen %75ek baino gehiagok eta emakumezkoen %70ek baino gehiagok egin dituzte horrelako kontsultak aurreko urtean zehar.


#### • 98 IRUDIA

Erizainen kontsultetara jotzen duten emakumezkoen proportzioak gora egiten du, klase sozialean behera egin ahala; zehazki, I. klasekoen %45ek eta V. klasekoen %53k jo dute kontsulta horietara. Gizonezkoetan, berriz, ez dago desberdintasunik era horretako kontsulteren erabileran.

#### 97 IRUDIA

Erizainen kontsulteren erabilera adinaren arabera, 2013  
Uso de consultas de enfermería según la edad, 2013


Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo



#### 98 IRUDIA

Erizainen kontsulteren erabileraren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013  
Desigualdades en el uso de consultas de enfermería por clase social, 2013

Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### VII. Erizainen kontsultak

#### • 99 IRUDIA


Ez dago ikasketa-mailaren araberako desberdintasunen joera sistematikorik erizainen kontsulten erabileran.

99 IRUDIA

#### Erizainen kontsulten erabileraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013

#### Desigualdades en el uso de consultas de enfermería por nivel de estudios, 2013

Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAeko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### VIII. Dentisten kontsultak

#### • 100 IRUDIA

Gizonezkoen %47k eta emakumezkoen %53k kontsultaren bat egin diote dentistari aurreko urtean zehar. Kontsulta hauen erabileran, gizonen eta emakumeen aldeak handiagoak izan dira 15-64 urteetan. Adinak gora egin ahala kontsulta kopuruak behera egin du; izan ere, 75 urte eta gehiagoko pertsonen kasuan, %30ek kontsultatu du.


#### • 101 IRUDIA

Aurreko urtean zehar dentistarengana jo duten pertsonen proportzioak behera egiten du nabarmen, maila sozioekonomikoak ere behera egin ahala. I. klaseko gizonezkoen %58 eta emakumezkoen %63 joan dira dentistarengana; V. klasekoen artean, berriz, gizonezkoen %38 eta emakumezkoen %41 joan dira.

#### 100 IRUDIA

Dentisten kontsulten erabilera adinaren arabera, 2013  
Uso de consultas al/la dentista según la edad, 2013


Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo



#### 101 IRUDIA

Dentisten kontsulten erabileraren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013  
Desigualdades en el uso de consultas al/la dentista por clase social, 2013

Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### VIII. Dentisten kontsultak

#### • 102 IRUDIA


Era berean, ikasketa-mailaren araberako joera mailakatu bat dago dentisten kontsultetara jo dutenen artean, gora egiten baitu ikasketa-mailak gora egin ahala: Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzten gizonezkoen %38k eta emakumezkoen %39k jo dute kontsulta horietara, eta unibertsitateko ikasketak dituzten gizonezkoen %46k eta emakumezkoen %56k.

102 IRUDIA

#### Dentisten kontsulten erabileraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013

#### Desigualdades en el uso de consultas al/la dentista por nivel de estudios, 2013

Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAeko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### IX. Mediku espezialisten kontsultak

#### • 103 IRUDIA

Gizonezkoen %45ek eta emakumezkoen %57k egin zioten kontsultaren bat mediku espezialistari aurreko hamabi hilabeteetan. Adinean gora egin ahala, handitu egiten da era horretako kontsultak egiten dituzten pertsonen proportzioa: 15 urtetik beherakoen artean, mutilen %37k eta nesken %35ek egin dituzte era horretako kontsultak; 75 urte eta gehiagokoaren artean, berriz, gizonezkoen %75ek eta emakumezkoen %69k.


#### • 104 IRUDIA

Oro har, ez dago klase sozialaren arabera desberdintasunen joera sistematikorik kontsulta horien erabileran, nahiz eta I. taldeko emakumezkoak diren era horretako kontsulta gehien egin dituztenak (%63).

#### 103 IRUDIA

Mediku espezialisten kontsulten erabilera adinaren arabera, 2013  
Uso de consultas al/la médico/a especialista según la edad, 2013

Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo




#### 104 IRUDIA

Mediku espezialisten kontsulten erabileraren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013  
Desigualdades en el uso de consultas al/la médico/a especialista por clase social, 2013

Desigualdades en el uso de consultas al/la médico/a especialista por clase social, 2013

Aldez aurreko urtebetean erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en el año previo



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK


### IX. Mediku espezialisten kontsultak

#### • 105 IRUDIA

Era berean, ez dago ikasketa-mailaren araberako joera sistematikorik mediku espezialisten kontsulten erabileran, nahiz eta azpimarratu behar den, era horretako kontsultak egin dituztenen artean, Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzten emakumezkoen proportzioa (%51) baxuagoa dela ikasketa-maila altuagoa duten gainerako emakumezkoena (%56) baino.

105 IRUDIA

Mediku espezialisten kontsulten erabileraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013  
Desigualdades en el uso de consultas al/la médico/a especialista por nivel de estudios, 2013



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

X. Larrialdiak

### • 106 IRUDIA

Gizonezkoen %13k eta emakumezkoen %14k erabili dituzte larrialdi-zerbitzuak aurreko sei hilabeteetan. Proporzio horrek behera egin du 2007koaren aldean, baina ez estatistikoki esanguratsua izateko moduan.


### • 107 IRUDIA

Gaztetxoek eta zaharrenek erabiltzen dituzte gehien larrialdi-zerbitzu horiek. 2013an, 15 urtetik beherako mutilen %20k eta nesken %18k erabili dituzte larrialdi-zerbitzuak aurreko sei hilabeteetan zehar; 75 urte eta gehiagoko pertsonen artean berriz, gizonezkoen %20k eta emakumezkoen %22k.

#### 106 IRUDIA

Osasun larrialdi-zerbitzuen erabileraren bilakaera, 2002-2013  
Evolución del uso de los servicios de salud de urgencia, 2002-2013

Aldez aurreko sei hilabeteetan erabili duten pertsonen prebalentzia\*  
Prevalencia de personas que han consultado en los seis meses previos\*




\*Adinaren arabera estandarizatua, EAeko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

#### 107 IRUDIA

Osasun larrialdi-zerbitzuen erabileraren bilakaera adinaren arabera, 2002-2013  
Evolución del uso de los servicios de salud de urgencia según la edad, 2002-2013

Aldez aurreko sei hilabeteetan erabili duten pertsonen prebalentzia  
Prevalencia de personas que han consultado en los seis meses previos



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### X. Larrialdiak

#### • 108 IRUDIA

Emakumezkoen artean, larrialdi-zerbitzuen erabilerak gora egiten du, klase sozialean behera egin ahala: klase sozial baxueneko emakumezkoen %18k erabili ditu larrialdi-zerbitzuak aurreko sei hilabeteetan; klase sozial altueneko emakumezkoen artean, berriz, %11k erabili ditu. Gizonezkoen artean, ez dago klase sozialaren arabera desberdintasun esanguratsurik.

#### • 109 IRUDIA


Ikasketa-mailak gora egin ahala, behera egiten du aurreko sei hilabeteetan larrialdi-zerbitzuak erabili dituzten pertsonen proportzioak: Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzten gizonezkoen %12k eta emakumezkoen %13k erabili dituzte larrialdiko osasun-zerbitzuak, eta unibertsitateko ikasketak dituztenen artean, berriz, gizonezkoen %7k eta emakumezkoen %9k erabili dituzte.

#### 108 IRUDIA

#### Osasun larrialdi-zerbitzuen erabileraren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013

Desigualdades en el uso de los servicios de salud de urgencia por clase social, 2013

Aldez aurreko sei hilabeteetan erabili duten pertsonen prebalentzia\*  
Prevalencia de personas que han consultado en los seis meses previos\*




\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

#### 109 IRUDIA

#### Osasun larrialdi-zerbitzuen erabileraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013

Desigualdades en el uso de los servicios de salud de urgencia por nivel de estudios, 2013

Aldez aurreko sei hilabeteetan erabili duten pertsonen prebalentzia\*  
Prevalencia de personas que han consultado en los seis meses previos\*



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### XI. Ospitaleratzeak

#### • 110 IRUDIA

2013an, gizonetzkoen eta emakumezkoen %8 ospitaleratu izan da aurreko 12 hilabeteetan zehar. Datu horiek 2007koekin alderatuz gero, bi sexuetan proportzioa %15 murriztu dela ikus daiteke.


#### • 111 IRUDIA

Aurreko urtebetean ospitaleratuak izan direnen proportzioak gora egiten du adinarekin; 2013an, 75 urte eta gehiagoko gizonetzkoen %19 eta emakumezkoen %18 izan dira ospitaleratuak.

#### 110 IRUDIA

**Ospitaleen erabileraren bilakaera, 2002-2013**  
Evolución del uso de servicios hospitalarios, 2002-2013


Aldez aurreko urtebetean ospitaleratzearen prebalentzia\*  
Prevalencia de hospitalización en el año previo\*



#### 111 IRUDIA

**Ospitaleen erabileraren bilakaera adinaren arabera, 2002-2013**  
Evolución del uso de servicios hospitalarios según la edad, 2002-2013

Aldez aurreko urtebetean ospitaleratzearen prebalentzia  
Prevalencia de hospitalización en el año previo



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### XI. Ospitaleratzeak

#### • 112 IRUDIA

I. taldeko gizonzkoek eta emakumezkoek izan dute ospitaleratze-proportziorik baxuena aurreko urtebetean zehar, baina desberdintasunak ez dira esanguratsuak.

#### • 113 IRUDIA


Emakumezkoetan, aurreko urtebetean ospitaleratuak izan direnen kopuruak behera egiten du, ikasketa-mailak gora egin ahala.

#### 112 IRUDIA

#### 113 IRUDIA

Ospitaleen erabileraren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013  
Desigualdes en el uso de servicios hospitalarios por clase social, 2013


Aldez aurreko urtebetean ospitaleratzearen prebalentzia\*  
Prevalencia de hospitalización en el año previo\*



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

Ospitaleen erabileraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013  
Desigualdes en el uso de servicios hospitalarios por nivel de estudios, 2013

Aldez aurreko urtebetean ospitaleratzearen prebalentzia\*  
Prevalencia de hospitalización en el año previo\*



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### XII. Eguneko ospitaleak

#### • 114 IRUDIA

2013an, Euskadiko biztanleen %6k erabili ditu eguneko ospitaleak aurreko hamabi hilabeteetan zehar. Eguneko ospitaleen erabilerak gora egiten du adinarekin, 65 urtera arte. 65 urtetik gorako gizonezkoak eta 65-74 urteko emakumezkoak dira aurreko urtebetean zerbitzu hori gehien erabili dutenak (%10 eta %9, hurrenez hurren).


#### • 115 IRUDIA

Ez dago loturarik klase sozialaren eta aurreko urtean eguneko ospitaleak erabili izanaren artean.

#### 114 IRUDIA

Eguneko ospitalearen erabilera adinaren arabera, 2013  
Uso del hospital de día según la edad, 2013


Aldez aurreko urtebetean erabileraren prebalentzia  
Prevalencia de uso en el año previo



#### 115 IRUDIA

Eguneko ospitalearen erabileraren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013  
Desigualdades en el uso del hospital de día por clase social, 2013

Aldez aurreko urtebetean erabileraren prebalentzia  
Prevalencia de uso en el año previo



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### XII. Eguneko ospitaleak

#### • 116 IRUDIA


Era berean, ikasketa-mailak ere ez du joera sistematikorik sortzen eguneko ospitaleen erabileran.

116 IRUDIA

#### Eguneko ospitalearen erabileraren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013

#### Desigualdades en el uso del hospital de día por nivel de estudios, 2013

Aldez aurreko urtebetean ospitalaratzearen prebalentzia\*  
Prevalencia de hospitalización en el año previo\*



\*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### XIII. Bertaratu gabeko osasun-zerbitzuak (Osarean)

#### • 117 IRUDIA

Osakidetzako informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) berrien herritarren ezagupen-maila zerbitzu-motaren arabera aldatu egiten da. Ezagunena da telefono bidez aurretiko hitzordu automatizatua eskatzeko zerbitzua (gizonezkoen %77k eta emakumezkoen %84k dute horren berri); ezezagunena, berriz, telemedikuntza (gaixotasun kronikoak ospitalera edo osasun-zentrorra joan gabe tratatzeko eta kontrolatzeko zerbitzua), pertsonen %9k soilik baitu zerbitzu horren berri.


#### • 118 IRUDIA

Telefono bidez aurretiko hitzordu automatizatua eskatzeko zerbitzua erabiliena ere bada; gizonezkoen %53k eta emakumezkoen %62k erabiltzen dute. Beste muturrean, telemedikuntza dago, herritarren %1ek soilik erabili baitu.

#### 117 IRUDIA

**Bertaratu gabeko osasun zerbitzuen ezaguera, 2013**  
Conocimiento de los servicios de salud no presenciales, 2013


Ezagutzen duten pertsonen proportzioa  
Proporción de personas que lo conocen



#### 118 IRUDIA

**Bertaratu gabeko osasun zerbitzuen erabilera, 2013**  
Uso de los servicios de salud no presenciales, 2013

Erabiltzen duten pertsonen proportzioa  
Proporción de personas que lo usan



# 04

## OSASUN- ETA ZAINKETA-ZERBITZUAK

### XIII. Bertaratu gabeko osasun-zerbitzuak (Osarean)

#### • 119 IRUDIA

IKTekin lotutako zerbitzurik ezagunena eta erabiliena (telefono bidezko hitzordu automatizatua) da balorazio okerrena duena, 5 baita batez beste eman dioten puntuazioa (0tik 10era bitarteko eskalan). Gainerako zerbitzuek batez beste lortu duten puntuazioa 7 inguru da.

119 IRUDIA

Bertaratu gabeko osasun zerbitzuarekiko gogobetetasuna, 2013  
Satisfacción con los servicios de salud no presenciales, 2013

Batez besteko puntuazioa  
Valor promedio puntuación

